

# VELASCO

ZARAUZKO ETXEA, HILERRIA  
ETA BURU-HEZURRAK



**VELASCO**

**ZARAUZKO UDALA  
SANZ ENEA LIBURUTEGIA  
2022**

Testuaren jatorria:

SÁNCHEZ GÓMEZ, Luis Ángel (2020). *Entre cadáveres. Una biografía apasionada del doctor Pedro Velasco (1815-1882)*; Madril: CSIC. 6. kapitulua: *La casa, el cementerio y los cráneos de Zarautz (87-108 or.)*

Azaleko irudia:

Rafael Munoa, 1989. *Udal Musikategia (Akuarela)*

## ZARAUZKO ETXEA, HILERRIA ETA BURU-HEZURRAK

Irakurleak liburu honen irakurketa bukatzen duenean, aurretik sumatu ahal izan duen zerbaiten froga ukaezinak edukiko ditu: Pedro González Velascok benetan bizitza bitxia izan zuen. Baina, onartuta ere haren izaera konbentzionalismoetatik kanpo zegoela, aitortu beharra daukagu biografia hori guztiz ezohikoak diren hiru mugarririk markatzen dutela, eta horiek finkatu dutela haren kondaira makabroa herriaren imajinarioan. Azken biak hurrengo kapituluetan ezagutuko ditugu: alde batetik, alaba Conchitaren heriotza eta haren gorpua baltsamatzea, desobiratzea, momifikatzea eta “etxean erakustea”; eta, bestetik, “Extremadurako erraldoia”-ren kasua, zeinaren hustuketa, hezurdura eta azala ere azkenean haren museoko bilduman sartu ziren. Lehena da, hain zuzen, orain aztertuko duguna: Zarautzen eraikitako egoitza zoragarria. Baina, zer dauka makabrotik zirujau errespetagarri batek udako etxe polit bat eraikitzeak ordurako famatua zen herri gipuzkoarrean? Ba, berez, ezer ez. Etxea eraiki eta handik gutxi-ara, eta modu nahiko susmagarrian, Velasco herriko hilerritik zetorren buru-hezur bilduma baten jabe egin zen, eta orduan hasi zen kontuaren alde iluna,

hilerria, hain zuzen ere, mugakide baitzen etxe berriko jardinarekin. Bada, kontu deigarri horretan sartu aurretik, onartu beharra dago modu bakarra dagoela hiru gertakari bitxi horiek esplikatu ahal izateko: Velasco doktorearen unibertso animiko eta profesional xeblebre baina koherentea ulertzeko gai izatea. Hala egiten badugu, baliteke haren jokarari esanahi bat eta logika on bat ere aurkitzea. Are gehiago, berretsi ahal izango dugu, nahiz eta hirurek mami makabro indartsu bat eduki, elementu guztiz legendarioak pilatu direla oinarrizko gertakarien gainean, eta horiek beste buelta bat eman diotela benetan gertatutakoari.

1860ko udazkenean gaude. Velasco une arrakastatsu bat bizitzen ari zen bere zirujau-ibillbide profesionalean. 1857tik Madrileko Medikuntza Fakultateko museo anatomikoetako zuzendari zen arren, haren ekonomia ona ez zen oinarritzen jasotzen zuen soldatan, baizik eta bezero-zorro indartsuan. Gainera, museo garrantzitsu bat zeukan, eta Medikuntzako klase partikularrak ikaslez gainezka. Hala ere, familia, artean, alokairuko etxe batean bizi zen Madrileko Atocha kaleko 135 zenbakian. Ordurako, erreinuko aristokrazia handiaren eta enpresari dirudunen familia batzuek Zarautz auke-ratuta zuten uda bertan emateko eta hango itsas bainuez eta klima atsegina gozatzeko. Nahiz eta

Isabel II.a erreginak ez zuen herria bisitatu 1865 arte, eta errege-etxeak ez bazuen ere han jauregirik eraiki, ordurako eraikita zeuden egoitza nabarmen batzuek leku berezi batean bihurtzen zuten, eta Zarautzen prestigioa esponentzialki hazi zen. Madrilgo *La Época* egunkarian argitaratutako ohar baten arabera, 1861eko irailaren 21erako Zarautzen etxea irekita zeukaten Narros markesek, Pascual Madoz politikariak,<sup>1</sup> Villahermosako dukeek, Realeko kondeek eta Aguilafuenteko markesek; gainera, beste bost egoitza eraikitzen ari ziren —besteak beste, Velascorena— eta beste hainbat proiektuan zeuden. Nahiz eta ez dakigun zerk ekarri zuen Velasco Zarautzera, eta plazer mundutarren oso zale ez bazen ere, garbi dago medikua izanik behar bezala baloratzeko gai izango zela nolako onura ekar diezaiokeen alabaren, emaztearen eta bere osasunari Madrilgo uda itogarritik eta osasungaitzetik ihes egin eta Kantauriko aire garbiaz, temperatura epelaz eta ur osasungarriez gozatzeko. Gainera, gauza jakina da, baita ere, udako egoitza han eraikitzeak herrialdeko pertsonaia garrantzitsuenen parean jarriko zuela; agian horietako bat edo beste haren pazientea izango zen,

---

<sup>1</sup> Zarautzen etxea edukitzearen zirkunstantzia (1849tik erabiltzen du) jasota dago bere *Diccionario geográfico...* famatuan herriari eskainitako artikuluan luze, zehatz eta goraiamenezkoan. Aspaldi desagertutako Madozen egoitzaren grabatu bat ere sartuta dago (Madoz, 1850: 649-659. 649-659).

eta horrek inondik ere mespretxatu ezin diren irabazi erantsiak ekarriko zizkion. Prozesua edozein izanda ere, berretsi daitekeena da Velascok 1860ko urrian eskuratu zuela lehen higiezina herrian, hiru jaberri finka txiki bana erosita, guztira 815 errealeko prezioan.<sup>2</sup> Lursaila ez da handia, 470 metro karratu besterik ez dauzka, baina laster handitu ahal izango du.<sup>3</sup> Ez dago itsasertzean ere, baizik eta gaur egun hondartzako bigarren lerroan deitzen diogun horretan. Eta, noski, herriaren ekialdean kokatzen da, bere hedapen-eremuan, San Frantziskoko komentutik eta baratzetik harago. Dena den, leku pribilegiatua da, eta are pribilegiatuagoa izango da Zarauzko hazkunde urbanistikoak aurrera egin ahala. 1861eko udan hasi ziren egoitza zoragarriaren obrak.<sup>4</sup> Bada, handik bi urte baino gutxiagora, herriko plano interesgarri batek (ikus 4. irudia), 1863ko maiatzean datatuak, aukera ematen digu “Pedro G. Velasco jaunaren etxe eta jardin” berria bere lekuan kokatzeko. Hiru urte lehenago erositako lurak baino handiagoa den finka


---

2 Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa (AHPG); Juan Jose Alzuru eskribauaren protokoloak, 2/4254, 236r-237v, 239r-240v eta 241r-242v orr.

3 Postura eta oin karratua dira kontratuetan erabiltzen diren neurri-unitateak. Hauek dira lehen hiru finka horien neurriak, hurrenez hurren: 6 postura eta 315 oin, 4,5 postura eta 2,5 postura. Gipuzkoan posturak 441 oin karratu ditu, eta oin karratu bakoitzari 0,0776 metro karratu dagozkio.

4 *La Época*, 1861eko irailaren 21a. Artikulu labur batean jasotzen da obren bilakaeraren berri; honela hasten da: “*Zarauzko herria guztiz eraldatzen ari da*”.

baten gainean dago.<sup>5</sup> Esan dudan moduan, lekua zoragarria da, eta inguruak egokiro urbanizatu dira: iparraldeko sarrera zuhaiztutako etorbide batetik egiten da, “Zumardi publikoa”. Hegoaldean, Kale Nagusiaren luzapenarekin egiten du muga, hori ere zuhaiztua. Zati hori “Errepide” edo “Gortearen Errepide” gisa ezagutzen zen, Zarautz Oriorekin eta Donostiarekin lotzen zuen antzinako bidea. Ekialdean baratzeak daude, eta mendebalderantz San Frantziskoko baratzearen hormarekin egiten du muga segoviarraren jardinak.



4. irudia. Zarauzko herriaren plano manuskritoa, 1863ko maiatza. Zarauzko Udala. Zirkuluan, Velascoen etxea eta jardina eta herriko hilerri zaharra ikusten dira.

5 Plano horren kopia digital bat lortu ahal izan dut, Zarauzko Udaleko erakusketetako arduradun Myriam González de Txabarriren adeitasunari esker. Frogatu dut dokumentu interesgarri hau gutxienez behin erreproduzitu dela, nahiz eta oso kalitate eskasarekin eta jatorriaren argibiderik gabe (Piquero y Sánchez, 1987: 380).



## HILERRI BATI ATXIKITAKO ETXEA

Honaino, ezer berezirik ez. Baina, deigarria da finkak karratu baten itxura hartu nahi duela eta, hala ere, irudi ideal horren laurden bat zerk eta herriko hilerriak okupatzen duela.<sup>6</sup> Zirkunstantzia horrek eta Velascok hilerria bereganatzeko zeukan irrikak –1860rako udal agintariak hilerria lekuz aldatzea aztertzen ari ziren– nolabaiteko nahasmena sortu dute egoitzaren eraikuntza-datari eta berezko izaerari buruz. Egia da, artikulu bitxi batean (1973), Evaristo Urangak idatzi zuela Velascok bere etxea antzinako hilerri baten “gainean” eraiki zuela 1870 ondoren, eta ordura arte hurbileko beste etxeren batean bizi izan zela. Duela gutxi (2012 eta 2016), Giménez Roldanek argudiatu du 1861eko prentsan aipatutako etxe hori eta gero Villa Munda gisa ezagutuko zena –gaur egun ikusten duguna– desberdinak zirela, berak ere uste baitu azken hori hilerria erosi ondoren eraiki zela, hustutako hilobien “gainean”. Bada, notariotzako dokumentazioak, prentsak eta 1863ko plano horrek frogatzen dute Villa Munda –Zeleta Berri ere deitzen dena– ez zela eraiki 1870aren eta 1875aren artean, egile horiek eta argitalpen espezializaturren batek ere adierazten duten moduan (EHAEO,

---

<sup>6</sup> Salerosketako dokumentuari esker (aurrerago aipatuko da) badakigu hilerriak 832 metro karratuko azalera zuela.

2004: 233), baizik eta 1861ean, eta ez zela hilerri zaharraren gainean eraiki, baizik eta haren alboan.<sup>7</sup> Hori bai, gaur egun duen irudia ez dator guztiz bat jatorrizkoarekin, gerora aldatu egin zelako altuera bakarreko bi eranskinekin (horiek por-txe edo patio moduko bat eratzen dute hegoaldeko fatxadan).<sup>8</sup> Velasco hil ondoren, 1882an, alargunak Jose de Murga y Reolid jaunari saldu zion etxea (Linareseko lehen markesari). Handik gutxira Villa Munda izenez ezagutuko zen, jabe berriak izen hori jarri baitzion, bere emazte Raimunda de Osorio y Ortegaren omenez. Askoz geroago Zarauzko Udalak erosi zuen. Zenbait urtez herriko musika-akademia bertan egon ondoren, gaur egun herriko musika-bandak eta koruak erabiltzen dute beren

---

7 Hala ere, Velasco 1864an egindako beste eraikin baten jabea izan zen (jadanik ez du existitzen). Kotxe-toki bat zen, gero etxebizitza bihurtu zena (zalantzarik gabe zerbitzariarentzat), bere etxeko jardinarean, San Frantziskoko baratzearen eta “Gorteko errepidearen” artean zegoena. Beheko solairua, bi goi-solairu eta ganbara zituen, eta guztira, nik uste, 178 metro karratuko azalera; horri 125 metro karratuko ukuilua gehitu behar zaio. 1883an, herentzian jaso zuen Dolores Ostolaza Aguinagak (1849an jaio-takoa, ezkongabea eta Velasco familiaren neskamea). Legatu ederra izan zen, 40.000 pezetatan baloratutakoa. Datu hori jasota dago doktorearen ondasunen banaketan; Madrilen egin zen, 1883ko maiatzaren 10ean, Francisco Moragas y Tejera notarioaren aurrean. Madrileko Artxibo Historikoaren Protokoloa (PAHM), 35.004 liburua, 2.101r-2.101 v orr.

8 Dena den, Aurizenearen oharra ez da egia (1987: 144) esaten duenean XX. mendean “altxatu eta handitu” zela. Eta beste argibide bat gehiago: iparraldeko fatxadan, sarreraren alde banatan dauden marmolezko bi lehoiak, oraindik ere bertan daudenak –badirudi Antonio Canova eskultore italiarraren obrak direla–, Velascok jarri zituen, eta ez jauregiaren bigarren jabeak, idatziren batean baieztatzen den bezala. Datu hori Tolosa Latourrek berresten du (1882: 20).

entseguetarako, eta antzerki-tailerrak antolatzeke ere erabiltzen da.<sup>9</sup> Edonola ere, alde batera utzita nork eraiki zuen edo ondorengo jabeak zein izan ziren, Velasco doktorearen eraikin zaharrak garrantzi nabarmena du historia eta ondare mailan, eraikin hori baita, Sanz Enea hurbileko etxearekin batera (gaur egun udal Kultur Etxea), XIX. mendeko bigarren erdian zehar Zarautzen altxatu zen egoitza-arkitektura ederretik gure egunetaraino iritsi den ia adibide bakarra (ikus 5. irudia).



**5. irudia. R.G Velascok Zarautzen eraikitako etxe ederra, gero Villa Munda gisa ezagutuko zena, 2017ko maiatza (egilearen argazkia).**

---

9 Nire eskerrak Myriam González de Txabarriri, emandako informazioa-gatik. Villa Mundari buruz sintesi-artikulu bat dago Wikipediaren edizio espainiarrean. Datu batzuk ere ematen dira, antzinako argazki eta guzti, hemen: <https://www.fotosantiguas-dezarauz.com/villa-munda>.

Baina itzul gaitzen hemeretzigarren mendeko egun haietara. Oso litekeena da Velascok, emazte Engraciak eta alaba Conchitak 1862ko udan gozatea lehen aldiz haien etxe ederraz. Familiaburua pertsonaia famatua da, diruduna, errespetagarria eta, egiazki, xeble samarra ere bai. Zalantzarik gabe, herrian berehala zabaldu ziren haren afizio bitxiei buruzko istorioak, haren bildumazale-obsesioa, edozein objektu arraro –giza hezurak eta gorpuzkiak barne– biltzeko nahia. Litekeena da zarauztarren batek susmo txarra hartzea segoviarraren asmoei, etxea hilerriko pareten ondoan eraiki zuelako; baina ausartegia da pentsatzea leku hori hain zuzen ere zirkunstantzia berezi horregatik aukeratu zuela, alegia, “euskal arraza”-ko buru-hezurak –garai hartako naturalisten eta antropologoaren artean halako interesa sortzen zutenak– iruzurrez-edo eskuratzeko. Egia da, Velasco doktorearen kasuan, “ia dena” posible dela, baina aitortu beharra daukagu badaudela mekanismo askoz errazagoak eta merkeagoak buru-hezur batzuk lortzeko, oso euskaldunak izanda ere, hilerri zahar baten ondoan udako egoitza handi bat eraikitzea baino. Bistakoa da, beraz, ez zuela halako gastua egin bere bizilagun berrien hilobiak arpilatzekeo asmoarekin. Baina, beste lur batzuk aukeratu ahal izan zituen? Bai, seguruena hori egin zezakeen, baita jabeek salmentari eragozpenen bat jarrita

ere edo finken ordainetan prezio altuagoa eskatu-  
ta ere. Hortaz, ba al dago beste arrazoirik halako  
kokapen bitxia justifikatzeko? Agian, bai. 1863ko  
plano hori begiratzen badugu, ikus dezakegu Vel-  
lascok alde zaharretik hurbilen dauden lurretan  
eraiki zuela etxea, itsasertzeko bigarren lerroan  
libre zeuden lurretan. Gainera, muga egiten zuen  
komentuko baratzeke paretekin; eta badirudi ho-  
rrek inguruaren lasaitasuna ziurtatzen zuela. Le-  
hen lerroan eraikitzeke, berrehun edo hirurehun  
metro ekialderantz mugitu beharko zuen, Pascual  
Madozen oihal-fabrika baino urrutiago. Egia da,  
baita ere, hilerritik aldendu zezakeela, bigarren  
lerroan bertan, antzera edo are gutxiago mugitu-  
ta. Aitortzen dut proposamen horiek ez direla oso  
sinesgarriak, eta oraindik ere gutxienez deigarria  
dela jabe aberats batek bere jauregia hilerri bati  
itsatsita eraikitzea, beste nonbaiten egiteko aukera  
edukita. Bada, oraindik azken aukera bat badago  
zentsugabekeria bat edo, kasurik onenean, kapri-  
txo makabro bat besterik ez dirudien horri zen-  
tzu bat aurkitzeko: Velascok finka horiek 1860an  
erosi zituen, ordurako informazio fidagarria zue-  
lako: hilerria lekuz aldatzekoak ziren luze gabe;  
badakielako denbora laburrean –agian pare bat  
urtean– bere jardina handitu ahal izango duela eta  
halako bizilagun berezietatik libratu. Eta, jakina,  
oraindik ere kontuan har dezakegu “aldeko” beste

zirkunstantzia bat, eta hau, bai, benetan morbo-soa da: Velascok poz-pez onartu zuen aldi bateko bizikidetza hori, jakitun zelako herriko hilobi eta hezurtokiekiko halako hurbiltasun intimoan egonda, agian lortuko zuela, hain zuzen ere, “pieza”-ren bat edo beste jasotzea bere Museo Anatomikorako.

### LAGUN, BURU-HEZUR BATZUK OPARITZEN DIZKIZUT

Asmo horrekin egin ala ez, nahiko informazio badago jakiteko noiz lortu zituen pieza horiek eta zein baldintzatan egin zuen zeregin berezi hori. Hain zuzen ere, ordurako famatua zen Paul Broca antropologo eta anatomista frantsesak kontatu zuenez (1862: 581), 1862ko abuztuan jaso zuen Velascok emandako lehen buru-hezurra, hark “Gipuzkoako probintziako hilerri batetik ateratakoa”. Ale horrek haren arreta osoa piztu zuen, buru-hezuraren dolikozefalia nabarmena guztiz kontraesanean zegoelako Magnus Gustav Retzius suediarren arabera “euskal arraza” bereizten duen ustezko bra-kizefaliarekin. Hainbeste gustatu zitzaion oparia, ezen handik hilabete batera Velascorekin elkartu baitzen beste ale batzuk biltzeko. “Uzta” izugarria izan zen: frantsesak beste 59 buru-hezur lortu zituen, eta Parisera eraman. Berehala hasi zen ho-

riek aztertzen, eta, hain zuzen ere, ikerketa horren ondorioak izan ziren Parisko Sozietate Antropologikoan aurkeztu zituenak, 1862ko abenduaren 18an egindako bilkuran.

Alde batera utzita Brocaren ondorioek sortutako eta hainbat hamarkadatan luzatutako eztabaida sutsuak, orain interesatzen zaiguna da bi kideek egin zuten “landa-lan” bitxiaren inguruko zirkunstantzietan sakontzea.<sup>10</sup> Arreta pizten duen lehenengo datua da –eta nola, gainera– lehen testu horretan antropologo frantsesak ez duela identifikatzen inoiz zein herritan egin duten “erauzketa”. Bakar-bakarrik esaten du Gipuzkoako probintziakoak direla, bertako bizilagunek “oraindik euskaraz hitz egiten dutela” eta “herri ilun horrek ez duela inolako paperik jokatu historian”. Hau da, ez du nahi inork zalantzan jartzea bertako herritarren jatorrizko euskal izaera ez mestizo eta kutsatu gabea. Baina, akademiko eta zientzialari positibista bat denez, alegia, iturriak eta prozedurak ezkutatzen ez dituen, haren hitzaldia laburbiltzen duen testuak ohar deigarri hau gehitzen du: “Broca jaunak datu eta xehetasun zehatzak eskaintzen dizkie [tertuliakideei] berak hilerritik atera dituen buru-hezurak benetakoak direla frogatzeko; hala

---

<sup>10</sup> Euskaldunen antropologiari buruzko eztabaidan Zarauzko buru-hezurren gaia sartzeari buruz, ikus GIMÉNEZ ROLDÁN, 2016.

ere, informazio hori publikoan ez zabaltzeko eskatu zuen, soilik Sozietateko kideei zuzendutakoa zelako”. Zergatik halako sekretismoa? Erantzunik errazena eta historia honen guztiaren alde makabroari ondoen egokitzen zaion argudioa da Velascok eta Brocak hilobi-profanatzaile baldar batzuen gisa jokatu zutela, mendearen lehen hereneko “berpiztaile” britaniarrak bezala, zeinak hilotz lurperatu berriak lapurtzen zituzten eskrupulurik gabeko zirujaueri eta anatomistei saltzeko; eta, jakina, kontua ez da zeure burua salatzea. Hori bai, antropologo-parearen altxorra ez zen izango hilotz berri baten gorpu freskoa, baizik eta hain morbosoa ez den beste zerbait: buru-hezur garbi-garbiak. Benetan hala izan al zen? Ez, zehazki; baina goazen atalka.

Lehenik eta behin pentsatu behar dugu Velascok Brocari lehen buru-hezurra bidali baino lehentxeago egin zuela hilerriko lehen sartu-irtena, hau da, 1862ko ekainean edo uztailean, egoitza berria estreinatu zuenean. Uste izatekoa da, baita ere, ez zuela hartuko ale bakar bat, baizik eta beste pieza batzuk ere bilduko zituela bere bildumarako. Hilabete pare bat geroago, irailean, elkarrekin arituko ziren zeregin horretan. Baina, nola egin zuten? Inondik inora ezin da pentsatu beraiek edo hirugarrenek hilobiak espoliatuta lortu zituztela



buru-hezurak; prozedura hori erabili izan balute hamarnaka hilobi ireki beharko zituzten, agian hilerriko guztiak, eta dena Gruyer gazta bat bezala laga. Arrazoizkoena da pentsatzea hezurtegian sartu zirela, alegia, hilotz berriei lekua lagatzeko hustutako hilobietatik ateratako gorpuzkiak botatzen ziren biltegian. Halako zerbait ondorioztatu daiteke Brocak berak 1862ko hizketaldian esan zuenean buru-hezurak inolako ordenarik gabe “atera” zirela, “aurkezten ziren” moduan. Jakina, argibide horiekin auditorioari sinetsarazi nahi dio ez zirela hautatu, aprioristikoki, “euskal arraza”-ren dolikozefaliaren hipotesia berresteko asmoarekin. Baina, adierazpen horrek pentsarazten digu, baita, giza gorpuzkien katalogo zabal eta desordenatu bat zeukatela, oztoporik ez zutela horiek eskuratzeko, eta piezak ausaz ateratzen zituztela. Baina, ba al dute Udalaren edo parrokoaren baimenik halako zeregin berezi baterako? Lortu bazuten, garbi dago Brocak ez zuela inolako beharrik izango bere memoriaren irakurleei herriaren izena ezkutatzeko, hain zuzen ere, edozein ikerketatan, funtsezko datua baita landa-lan antropologikoa non egin den identifikatzea. Eta, baimenik jaso ez bazuten, geure buruari galdetu behar diogu nola lortu zituzten horrenbeste buru-hezur eskandalurik sortu gabe; izan ere, zalantzarik ez dago zeregin horrek denbora asko eskatzen due-

la, seguruena eguneko argia ere bai, eta gutxienez garraiorako gurdi bat. Egia da hilerria zertxobait aldentuta zegoela, San Frantziskoko baratzeke paretek eta Velascoren egoitza berriak begiradetatik ezkututzen zutela, baina zaila izango zen haien ekintzak sekretuan gordetzea, ez baziren, jakina, hezurtokian gauez sartu, kriseiluen argiarekin edo, are hobeto, hemeretzigarren mendeko misterionobeletan agertu ohi diren “esku-argi” horiekin argizatuta, giro makabro eta –orain bai esan dezakegu– benetan beldurgarri batean. Eta, azkenean, hala izan zen: sartu-irtenetan, gauez eta azpikeriaz jokatu zuten bi kideek. Antropologo frantsesak lau urte geroago artikulu batean halaxe berretsi zuen, aitortu zuenean 1862an lortutako buru-hezurak “à la hâte, sans choix, la nuit” jaso zirela, hau da, “azkar, hautatu gabe, gauez” (Broca, 1866: 470). Eta datu hori asmo batekin eman zuen: bereizi egin nahi zituen garai hartan erabilitako prozedura ez hain zientifikoa eta Velascok orain, berak bakarrik, hezurtegian egin duen sartu-irten berrian ustez erabili duena. Azken hori seguruena 1866ko udara hasieran egin zuen; segoviarrak hortik ale kopuru eder bat lortu zuen, eta horietako hemeretzi Brocari bidali zizkion ekainean.<sup>11</sup> Frantsesak ohar hau

---

11 Brocak berak baieztatzen duenez, hemeretzi buru-hezur horietatik, hamar bakarrik gelditu ziren Parisen, gainerakoak Velasco doktorearen Madrileko museora itzuli ziren.

egin zuen horri buruz: “Aldiz, hauek [1866an jasotako buru-hezurak] bere gustura hautatu zituen Velasco jaunak, zeina hilerritik oso hurbil bizi den, eta denbora gehiagorekin eta kontu handiagorekin bildu ahal izan duen sorta berri hau”. Jakina, bigarren sorta honek “euskal arraza”-ren doli-kozefalia berresteko balio izan zion. Baina, horrek orain ez du garrantzirik; benetan axola zaiguna Velascoren jokabidea da.

Laster frogatuko dugunez, hilerrri zaharra 1866an itxi zen, baina hilobiek eta horien okupatzaileek bertan jarraitzen zuten. Segoviarra tematuta zegoen: hilerrria erosi nahi du; eskaintza eskuzabalak egiten ditu, baina alkatea aurka dago. Orduan, zerbait aldatu al da 1862 urtearekin alderatuta? Bada, berez, ezer ez, hilerrriaren itxiera ez bada. Egia da, Brocak dioen modura, Velasco ondoan bizi zela, baina hori hala zen lau urte lehenago ere. Orduan, posible al da buru-hezurren uzta berria lasaitasun handiagorekin, eskandalua sortzeko beldurrik gabe egitea? Bada, nik uste ez dagoela arrazoi legal edo formalik hori justifikatzeko, eta, berez, Velasco berriz sartu zela hezurtegian, agintari zibilen edo elizakoen baimenik gabe. Baliteke, gainera, egunez ere egitea, lasaitasun handiagorekin eta argi hobearrekin; baina hala egitea lortu bazuen azpizokoren bat erabili behar izan zuen, edo

beste laguntzaren bat zeukan edo, agian, norbait erosi zuen.<sup>12</sup> Behintzat ematen du ez zeukala inoren oniritzi ofizialik; eta are gutxiago herritarrena. Edonola ere, Brocak isilean gorde zuen herri gipuzkoarraren izena euskal buru-hezurren gaiaren ondorengo berrikuspenetan, nahiz eta egia den lehen letrarekin identifikatu zuela: orduan “*ville basque de Z.*” zen (Broca, 1863; 1866; 1868). Sei urte geroago, bere idatzien bilduma batean, azkenean, izena aipatzen ausartu zen, baina ez du azaltzen nola lortu zuen, Velascorekin batera, espezimen berezi horien jabetza (Broca, 1874).

Alde batera utzita zein baldintzatan lortu zituzten, Zarauzko buru-hezurrek eztabaida biziak sortu zituzten “euskal arraza”-ri buruz; Velascok ez zuen horietan parte hartu. Ez da haren esparrua; berak nahiago zuen bilduma egin eta erakutsi. Are gehiago, kraneologiaren esparruan kasu patologikoen

---

12 Hemen ohar bat egin behar da. Velascoren dizipulu Ángel Pulidok, 1876 eta 1880 arteko apiril bakoitzean, artikulua bat argitaratzen du *El Anfiteatro Anatómico Español* aldizkarian, museoaren inaugurazioaren oroimenez. Horietan guztietan, testuaren gorputz nagusia orla batek inguratuta azaltzen da, eta bertan inskribatuta daude museoari piezaren bat dohaintzan eman dioten pertsonen edo erakundeen izenak. 1876 eta 1877ko artikuluetan –horietan bakarrik– “Luis N. Zarauzko parroko” delako bat aipatzen da. Zergatik ez da bere abizena osorik idazten? Herriko parrokoa al zen, Velascok udal hezurtegian bere sartu-irtenetako bat egin zuenean? Era batera edo bestera lagundu egin al zion hilerriaren espoliazioan? Edo Velascori objektu etnografiko, erlijioso edo tradizional bat oparitu besterik ez zion egin? Seguruena inoiz ez dugu jakingo, baina intriga benetan erakargarria da.

azterketak edo, batez ere, deskribapenak sortzen zuen haren interesa; arrazen aniztasunaren ezagupenak ez zuen erakartzen. Baina biziki maite zuen buru-hezurak, hezurak, animalia diseatuak eta beste bitxikeria batzuk biltzea, eta berehala hasi zen egoitza berrian museo antzeko bat martxan jartzen, egia bada ere inoiz ez zuela edukiko Madrilgo museoaren izaera akademikoa. Edonola ere, Velascok herri gipuzkoarrean gauzatu zuen erakusketa-zaletasun goiztiar horren proba gisa, dokumentu berezi bat daukagu: Zarauzko etxera egindako bisita bat kontatzen duten ohar laburrak dira, eguneroko batean idatzitakoak. Egilea –kasu honetan, emakume bat– oso pertsonaia berezia zen: Mathilde van Eys (ezkongabetan, Mathilde Kleinmann), Willem Jan van Eys euskararen ikerlari saiatu eta hizkuntzalari holandarraren emaztea. 1866an eta 1868an, Mathilde bere senarrarekin batera ibili zen euskal lurretan egindako bidaietan. Bigarrenean, irailean, senar-emazteak Velascoren etxeraino hurbildu ziren.<sup>13</sup> Mathilde van Eysen bere egunerokoan idatzi zuenak aukera ematen digu XIX. mendearen azken hereneko Zarautz sofistikatuaeren arlo etxetiarrean agertzen den unibertso deigarri horren hainbat irudi antzemateko. Kasu honetan, alde batetik, filologo holandar adi-

---

<sup>13</sup> Bigarren bidaia horren oharra askoz geroago editatu zituen George Lacombe (1927); bere testutik hartu dira paragrafo honetako aipua.

mentsu batekin ezkonduko dama frantses argia aurkezten du; eta, bestetik, neskame-ohi bat, andre txit prestu batean bilakatutakoa, eta haren senarra, fraile-ohi bat, buru-hezur, eskeleto eta fetu hinguigarrien bildumagile eta zirujau famatu batean bihurtutakoa. Engraciak, doktorearen emazteak, “*une charmante petite biche du midi de l’Espagne*” baten laguntzarekin hartu zuen Mathilde, hau da, orein kume andaluziar baten ondoan, nahiz eta ez naizen ausartzen esaten esamolde horrek errealitateari erantzuten dion edo nolabaiteko metafora bat den. Mathildek, bere aldetik, “*squelette de la gueule du chien de mer*” bat oparitu zion segoviarrari (marrazo txiki baten baraila). Ondoren, agurrak eta opariak adeitsuki trukatu eta gero, Velasco atsegín batek besoa eskaini zion bere gonbidatuari, eta etxeko lehen solairura lagundu zion, bilduma deigarriak gordetzen zituen lekura. Mathildek us-tekabe atsegina izan zuen han ikusi zituen “harri aroko pieza guztiz bitxiekin”, Filipinetatik zetorren objektu berezi batekin eta egurrezko tailu arraro batekin; azken horrek badirudi ez zeukala izaera etnologikorik, sustrai edo enbor bihurritu bat zirudielako, eskultore batek moldatutako forma bitxia. Haren ohar laburrak bukatzeko, bilduma malakologikoaren aberastasuna azpimarratu zuen, kasu honetan, bai, benetan esanguratsua zelako. Ez zait ukatuko hemeretzigarren mendeko

nobeletako eszentrikotasunez guztiz kargatutako eszenak direla, eta, gainera, horien protagonista batere konbentzionala ez den emakume bat dela.

## HILTZERAINOKO BORROKA HILERRI BATENGATIK

1874arte biltegi bisitagarri moduko bat izan zen egoitza. Jabeak han gordetzen zituen Madrilgo lehen bi museotan espazio faltagatik erakutsi ezin zituen pieza guztiak. Dena den, seguruena ez zituen erakutsiko etxetik metro gutxitara ez hain aspaldi bildutako buru-hezurak. Urte horietan guztietan –eta 1871n lortu zuen arte– Velascok ez zuen atzera egin literalki etxeko atean zeukan hilerri zaharra erosi arte. Gutxienez 1863ko udatik badago, bazegoen, udal artxiboan, haren etengabeko gogo bizi horren froga dokumentala.<sup>14</sup> Badago zirkunstantzia alboraezin bat haren alde: hilerria txiki gelditu da, itxiera saihestezina da. Herriko agintariak aztertzen ari dira non egon daitezkeen erai-kin berrirako lurrik egokienak eta zein izan daitezkeen gorpuzkiak lekualdatzeko modurik errazena eta merkeena. Kostua handia zenez eta gaiak au-

---

14 Besterik adierazten ez bada, hurrengo paragrafoetan aipatzen diren udal dokumentuak sute batean desagertu ziren. Urangaren artikuluarri esker ezagutzen ditugu (1973).

rrera egiten ez zuenez, herriko jabe gailenetako batzuek laguntza ekonomikoa eskaini zuten; hala egin zuten, gutxienez, Narrosetako markesak, Egaña familiak eta Velascok berak. Handik gutxira, segoviarrak estrategia aldatu zuen: hilerria erostea proposatu zuen, guztira hamar mila errealetan. 1863ko abuztuaren 16an zinegotziek baztertu egin zuten eskaintza: uste dute eskaintako diruak ez lituzkeela estaliko desobiratzeen gastuak, eta, edonola ere, bidezkoena izango litzatekeela lizitazio publiko baten bidez saltzea. Agian, amarru bat besterik ez zen, baina, zalantzarik gabe, bazekiten inork ez ziola ordainduko udal diru-kutxari baliorik gabeko lur-zati horrengatik Velasco ordaintzeko prest zegoena baino prezio altuagoa.

1864ko urtarrilean, zinegotziek, azkenean, lur berriak erostea erabaki zuten; 1865eko abenduan bukatu ziren hilerri berriaren obrak. Hala ere, artean gairik delikatuena konpontzeko zegoen: hilerri zaharrean desobiratutako gorpuen lekualdatzea. 1866ko martxoan, Velascok beste erosketak eskaintza bat egin zuen, baina gaiak ez zuen orduan ere aurrerabiderik ekarri. Hiru urte beranduago, berriz saiatu zen. Orduko hartan, hitz eman zuen hilerri berrian estalpe baten eraikuntza ordainduko zuela, bertan autopsiak egiteko, eta, berak hornituko zuela, gainera, gune horrek behar



bezala funtzionatzeko behar zuen material guztia. Berriz ere ezezko erantzuna jaso zuen. Puntu horretara iritsita, Velascok pazientzia galdu zuen. Urangak kontatzen du (1973) Velascok Manuel de Areizaga y Margallon markesari zuzendutako eskutitz bat –1869ko uztailearen 22koa– kontsultatu ahal izan zuela Narroseko etxean, eta bertan bitartekaritza eskatu ziola Francisco Alzuru herriko alkatearen aurrean, uste baitzuen hura zela Udalak haren erosketa-proposamena ukatzearen arduradun nagusia.<sup>15</sup> Oso idatzi bitxia da; bertan agerian geratzen dira bai segoviarraren burugogorkeria bai nolako trebetasuna zuen makila eta azenarioa konbinatzeko, kontrako aldeari mehatxua eta eskaintza onuragarria egiteko. Alde batetik, baieztatzen du legea haren alde dagoela prozesu horretan guztian, dagoeneko arauzko epea igaro delako hilerrri zaharretik gorpu lurperatu berriak desobiratzeko. Seguruena datua egiazkoa izango da, baina zirkunstantzia horrek ez du behartzen inola ere lekualdatzea egitera; bakarrik esaten du dagoeneko egin daitekeela. Ondoren, beste argudio batez baliatzen da: mehatxu estali bat, berez ez litzatekeena erraza izango gauzatzea. Esaten du bera pertsona “adostailea” dela, ez duela nahi gaia “indarkeriazko bide”-tik eraman, beraz, konpro-

---

<sup>15</sup> Zarauzko Udalean gordeta dago gutun horren kopia bat. Giménez Rolandek transkribatu du (2012: 219-220).

misoa hartzen duela hilerriaren lurak “tasazio egokia”-n ustez balio duena ordaintzeko, gorpuak desobiratu eta lekualdatzeko, eta, gainera, funtzio erlijioso solemnearekin eta hilerri berrira arteko prozesioarekin; hori guztia bere kontura. Are gehiago, hitz ematen du 1870eko urtarrilean herri-raino joango dela, eta bera arduratuko dela zuzenean eta “zientifikoki” prozesu osoaz.

Narroseko markesak fitxa mugitu zuen, eta haren esku-hartzea emankorra izan zen: 1869ko abenduaren 30ean, eta aldez aurretik bilera pare bat egin ondoren, Zarauzko Udalak oniritzia eman zion Velascoren proposamenari. Hori bai, agian markesaren esku-hartzeak zerikusirik izango zuen plan-aldaketarekin, baina ez dugu ahaztu behar 1869ko uztailaren eta abenduaren artean aldaketa politiko esanguratsu bat gertatu zela herrian: Alzuru kontserbadorea kargutik kendu eta espetxeratu egin zuten (eroskeria-salaketengatik), eta haren ordeaz Cayo Vea-Murguia y Escalante liberala jarri zen Alkatetzan. Velascok harreman askoz errazagoa eta lagunkoiagoa izango zuen azken horrekin. Are gehiago, herrialdea bizitzen ari den koiuntura –Seiurteko Demokratikoa– hain da Velascoren interes ideologikoen aldekoa, ezen La Iberia egunkari progresistak, 1870eko abuztuaren 18an argitaratutako artikulu batean, hitz faltsu

eta absurdo hauek esan zituen Zarauzko hobekuntza sozial eta urbanistikoei buruz: “Bai berrikuntza hauek bai garrantzi txikiagoko beste batzuk Vea-Murguia jauna buru duen udalak egin ditu, herriko baliabideekin eta Pedro González Velasco liberal agurgarri eta mediku jaun ospetsuak egingdako 14.500 errealeko dohaintza patriotikoarekin”. Halako baieztapen baten aurrean, pentsatzekoa da kazetaria oso gaizki informatuta zegoela, edo ez zela gai dohaintza bat eta erosketa baten ordainketa bereizteko –horixe besterik ez baita, nahiz eta prezioa sekulakoa izan–, edo, besterik gabe, manipulatzaile ezin hobe zela.

Asmakeria horretaz harago, bai gorpuzkien lekualdatzea, bai prozesioa, bai funtzio erlijiosoa egin egin ziren, hain zuzen ere, 1870eko urtarrilean, nahiz eta ezin den jakin ea Velasco bertan izan zen. Dena den, hurrengo urteko apirilean, hilerri zaharra ordurako hustuta eta desakralizatu-ta, Udalak salmenta aurreko urratsa eman zuen: finka bere izenean inskribatu. Azkenean, 1871ko ekainaren 13an, eta udaletxean bertan, alkateak –alegia, Vea-Murguiak– eta bere zinegotzietatik seik, “Udalaren gehiengoa osatzen dutenek”, hilerria saltzeko eta permutatzeko kontratua sinatu

zuten Velascoren ordezkari legalekin.<sup>16</sup> Akordioak oso berritasun onuragarriak ekarri zizkion udalerruari. Velascok, zeinak aurretik lekualdatzeak ordaindu zituen, ordura arte eskaintzen aritu zena baino kopuru dezente handiagoa ordaindu zuen eskudirutan: orain 14.500 errealetera igotzen du, La Iberia-k “dohaintza” gisa kalifikatzen duen kopurura. Gainera, ereiteko lur bat entregatu zuen, ia zazpi areako azalerakoa, 1.250 erreal kuartotan baloratutakoa; alegia, aholkularitza batzordeko lur-neurtzaileak hilerriaren finkari esleitutako 620ren bikoitza.

Azkenean, hamar urteko tira-biren ondoren, Velasco hilerri zaharraren jabe egin zen. Berak nahi baino dezente denbora gehiago behar izan zuen, sekulako ahaleginak eta gastu izugarri bat, ordaindutako prezioa eta bere gain hartutako gastuak askoz altuagoak zirelako haren jabetzara pasatu zen lurraren benetako balioa baino. Baina helburua beteta dago; bere jardina handitu dezake, eta Za-

---

16 Antonio Fernández Zarauzko notarioaren aurrean egin zuten (AHPG, sig. 2/3914, 317r-326v orr.). 1877ko irailean Velascok haren “baratzearekin” mugakide diren beste bi finka erosi zituen; La Vega deituriko zonan zeuden, baina bere etxetik eta jardinetik bananduta. 1.122 metro karrutuko azalera hartzen zuten (AHPG, sig. 2/3919, 996r-1.003r orr.).

rautzen daukan egoitza ederra finkatu.<sup>17</sup> Hori bai, aurretik beste erreal mordoxka eder bat gehiago gastatu behar du hormak eraisten eta lurra egokitzen. Gorpuzkiak lekualdatzeko unea aprobetxatu al zuen, 1870eko urtarrilean, buru-hezur “gehigarriren bat” eskuratzeko? Oso inprobablea da. Lehendik ere behar baino gehiago bildu zituen; ez zen aproposa, ezta zentzuzkoa ere, berriz horrela ibiltzea, behingoagatik udal agintariekin akordio bat lortuta zuenean. Beraz, eta ondorio modura, azpimarratu beharra daukagu Velascok ez zuela hilerria erosi etxea han eraikitzeko eta hilobiak arpilatzeke, baizik eta dagoeneko bereak ziren hurbileko lurrak handitzeko. Hezurtegia –eta ez hilobiak– aspaldi arpilatu zituen: 1862an, hilerria oraindik irekita zegoenean; eta, hurrena, lau urte geroago, 1866an, itxi berritan, baina “inkilinoak” artean beren hilobietan zeudela.

## MUSEOA DEN ETXE BAT

1871ko erdialdera borroka bukatu zen, baina Zarauzko etxearen historia bitxiak aurrera jarraitu zuen. Izan ere, une horretatik aurrera, Velascok

---

17 Hilerria erositako bere egoitza eta jardina hartzen dituen finkak guztira 43.043 oin karratuko azalera okupatzen du (3.340 metro karraturen baliokidea). Datu hori jasota dago Velascoren ondasunen banaketan (AHPM, 35005 liburua, 2.096r or.).

denbora gehiago eduki zuen bere bildumetan zentratzeko, handitzeko eta, zorte pixka batekin, txukuntzen saiatzeko. Beste hiru bat urtean, 1874ko uda arte, pieza berriak sartu ziren: Madrileko Atocha 90eko etxean gainezka egindako museoan erakutsi ezin zituen guztiak. Mathilde van Eysek 1868an egindako bisitatik, izugarri hazi behar izan zuen bildumak. Seguruena material arkeologiko, etnografiko eta bitxikeria baztergarriak edo ez hain baztergarriak sartzten joango ziren, baina handik urte gutxitara Ángel Pulido jaunak Espainiako iparraldera egindako “bidaia mediko hezigarri” baten harira argitaratutako testigantza interesgarri batek zerbait gehiago erakusten digu –nahiz eta pintzelkada labur bat izan– halako espektakulu bisual izugarria ikustera haren etxera hurbiltzen ziren bisitariak aurkitu zezaketenari buruz.<sup>18</sup> Ordurako etxea ez zen herriko erakarpen nagusia, eta, jabeek uda oraindik bertan ematen bazuten ere, etxearen zati batek nolabaiteko itxura fantasmagorikoa zuen. Hauxe kontatzen digu medikuaren dizipulu gogokoenak haren garai loriaitsuak gogoratuz:

---

18 Gainera, artikuluko horretan Pulidok pasadizo bitxi bat aipatzen du: balea baten arrantzua Zarauzko kosta parean. Azkenean haragia hondatu egin zen, Zarauzko eta Getariako arrantzaleen artean sortutako liskarren ondorioz. Ez dirudi Velascok eskeletoa lortu zuenik!

Jakina da Velasco doktoreak herri honetan palazio bat daukela, jardin eta baratze ederrez inguratuta, leku benetan zoragarri eta poetikoa. Bertan, eta udako hilabete beroetan, nire maisu maiteak nolabaiteko atsedena ematen dio bere jardue-ra gogorrean gortean izaten dituen milaka zeregin eta kezkez gainezka egindako gorputzari; eta nolabaiteko atsedena esaten dut, bistakoa delako bere Museoaren zati handi bat Zarauzko udaldiko egonaldietan prestatu duela, batez ere anatomia konparatuari buruzkoa. Oraindik ere, palazioaren zatirik altuenean areto huts eta zabal bat dago, paretak zuloz josita [bertan piezak ainguratuta egon direlako]; hantxe zegoen Zarauzko Museoaren atal nagusiena, hain zuzen ere, bidaiariek herrian bisitatzen zuten edertasunetako bat. Gaur egun jada ez dago, 1874ko udan objektu guztiak Madrilera eraman zirelako, gorteko Museo zaharrean sartzeko eta horiekin guztiak Velasco doktorearen Museo Antropologiko handia osatzeko; baldintza horietan osatutako museo partikularretan munduko itzelen eta ugariena (Pullido, 1878: 130).

Horrenbestera izan gabe ere, benetan garrantzitsua den museo madrildarrari zuzendutako hotsandiko kalifikatiboak alde batera utzita, ikusten dugu Velascok anatomia konparatuari eskaini ziola 1874 arte Zarautzen gorde zituen bildumen zatirik handiena; horrela deitzen zaie gizakiarekin –izaki biologiko gisa– analisi konparatiboak egiteko balio behar duten animalia diseinatuen eskeletoei, organoei eta gorputz osoei. Zalantzarik gabe, halako piezen kontenplazioa ikuskizun handi batean bihurtu zen, hegazti, narrasti, dortoka eta ugaztu-

nen ehunka espezimen biltzen zituen erreperitorio zabal-zabala baitzeukan segoviarrak. Hamargarren kapituluan ikusiko dugunez, 1875etik aurrera haren Museo Antropologikoan ikusi ahalko da hori guztia, bai anatomia konparatuari eskainitako “Areto txikian”, bai “Hegaztien areto” deigarrian (museoaren eraikin berean, etxe azpian daukan mediku-kontsultaren itxarongela gisa erabiltzen duen areto handia). 1875ean, Madrileko hiriak bazeukan jada bere Museo Antropologikoa; zoritarrez, Zarautzek betiko galdu zuen bere ondare turistiko eta kultural modernoaren zati berezi-berezi bat.

Museo hori 1875eko apirila arte inauguratu ez bazen ere, ia urtebete lehenagotik bukatuta zegoen egitura, eta ordurako posible zen bildumen zati bat bertan jartzea. Lehenik eta behin, Velascok Atocha 90eko etxean zeukan Museo Anatomikoan gordetako guztia eraman zuen. Gero haren egoitza gipuzkoar ederrean biltzen joan zen material-multzo izugarriaren txanda iritsi zen. Mudantza 1874ko udan egin zen, oso baldintza xelebreetan. Baldintza batzuk aldekoak ziren, teorikoki; beste batzuk, ez horrenbeste. Izan ere, hamar urte lehenagotik posible zen Madrildik Donostiara trenez bidaia-tzea; jakina, zirkunstantzia horrek aparteko eragina izan zuen Donostiako eta Zarauzko turismoaren



hedapenean. Trenbide-linea irekita, hamazazpi edo hemezortzi ordutara murriztu zen diligentzia-zerbitzu ondo antolatuak bi hirien artean egiten zuen lau eguneko bidaia. Eta handik Zarautzera paseo atsegin bat besterik ez zegoen. Velascok eta emazteak sei edo zazpi udatan erabili ahal izan zuten halako berrikuntza; haien alaba Conchitak, ez: trenbidea martxan jarri baino hilabete batzuk lehenago hil zen. Aurreko garaiekin alderatuta, ematen du 1874ko udan, a priori, askoz errazagoa izango zela Zarautzen jasotako bildumak lekualdatzea. Hiru edo lau ordutan gurdiak dena eramanez Donostiaraino eta, handik, Ormaiztegiko biaduktu ausartaren gainean zirkulatuta, hurrengo egunean materiala jaso daiteke Madrilgo Estación del Norte geltokian.

Gertatutakoari buruzko ia informaziorik ez dugun arren, litekeena da Velascok berak antolatzea eta zuzentzea lekualdaketa, seguruena bere ikasle Ángel Pulidoren laguntzarekin. Trenbidearen abantaila edukita ere, aurrean duten lana ikaragarritzko erronka logistikoa da. Arrazoiak bistakoa da: murgitu behar duten pieza-kopuru izugarria, eta gehienak guztiz hauskorrak. Gerora argitaratutako informazio baten arabera, Zarautzen jasotako bildumak ia ehun kutxatan paketatuta ziren, eta horiek idi-gurdietan zamatuta eta Donostiara eramanez behar

ziren. Baina, prentsa-ohar berberei kasu egiten badiegu, kontua da garraioaren bolumenarekin lotutako zailtasunak hutsaren hurrengoak zirela beste gauza askoz larriago batekin alderatuta: ustez, herrian kantonatutako tropa karlistak mudantza eragozten saiatu ziren, eta bildumak suntsitzeko mehatxua ere egin zuten. Hala kontatzen du *La Correspondencia de España*-k, Velascoren museo berria Madrilén inauguratu baino hilabete lehenago:

Bart arratsean [1875eko martxoaren 30a] Velasco jaunak, Española ostatuan, prentsa guztiari afari eder bat oparitzeko kortesia ere izan zuen; bertan egin ziren brindis sutsuetatik bereziki aipatuko dugu Velasco jaunak Perez Rioja jaunaren alde egin zuena, ahalegin askorekin lortu zuelako Museo Antropologikorako piezen 98 kutxa Zarauzko karlisten eskuetatik erreskatatzea eta Madrilera bidaltzea. Zorionak ematen dizkiogu Velasco jaunari zientzia medikoaren ikerketari eskainitako monumentu bat eraikitzeagatik.<sup>19</sup>

Beste egunkari batzuek askoz panorama dramatikoa aurkeztu zuten: *La Patria*-k idatzi zuen Perez Riojak Gipuzkoako Gobernu Zibileko buru gisa egindako jarduerari esker lortu zela “Museoko objektu asko, karlisten eskuetan zientziarako galduak izateko arriskuan egon zirenak” lekualdatzea; *El Popular*-ek, berriz, zuzenean baieztatu

---

<sup>19</sup> Prentsako aipamen hau eta hurrengo biak *El Anfiteatro Anatómico Español* aldizkarian argitaratu ziren 54, 1875eko apirilaren 15a, 364-366 or.

zuen haren esku-hartzeak “suntsiketatik libratu zituela Museoko objektuak”. Egia da, ez zen unerik egokiena gurdi-konboi luze eta astun bat iparraldeko bideetan barna ibiltzeko. Hirugarren Gerra Karlistak (1872-1874) oso gogor astindu zituen euskal eta nafar lurrak. Zarauzko herria, tropa karlistek okupatutakoa, bonbardatu ere egin zuen itsas armada liberalak 1874ko maiatzaren 26an. Egoera oso tirabiratsua zen, eta zeharo susmagarria zen ideologia liberal eta progresista aitortua zuen pertsonaia bat prest egotea kargamentu hain handia lehenengo Donostiara eta handik Madrilerara eramateko. Ez dakigu Perez Rioja horrek nola jokatu zuen koiuntura horretan, baina, azkenean, konboia hiriburu gipuzkoarrera abiatu ahal izan zen. Hala ere, arazoak ez ziren hor bukatu. Donostiara iritsita, zeinek eta Gobernu konstituzionaleko agintaritzak militarrek hartu zion susmoa kargamentuari:

Pedro González Velasco jaunak bere museoa zeuzkan Historia Naturaleko objektuz betetako 92 [sic] kutxa eraman ditu Zarauzko etxetik Donostiara, Madrilerara ekartzeko: Donostiara iritsitakoan bai kutzak bai horiek gidatzen zituzten gurdi eta idiak geldiarazi egin dira, Valcalcer gobernadore militar jaunak hala aginduta; nahi dena da Gerra Ministerioak esan diezaiola Gobernadore Militarrari objektu horiek libre lagatzeko.<sup>20</sup>

---

20 AGMS, P. González Velascoren espediente pertsonala. Sanidad, 1879, G-3583 paper-sorta.

Gerra Ministerioak Donostiako gobernadore militarri 1874ko uztailaren 4an bidalitako agindu batek baimena eman zuen kutxak azkenean trenean sartzeko eta, agian beste eragozpenik gabe, erreinuko hiriburura iristeko. Horrela bukatu zen Velasco doktorearen museo zarauztar bitxiaren historia. Zarauzko buru-hezurrena, oraindik ez. Gaur egun ere, noizean behin, gure protagonistaren irudia prentsan edo Interneteko orriren batean azaltzen bada, dagokion egileak gustura kontatuko du kapitulu honen hasieran aipatutako hiru gertaera makabroetako bat, edo hirurak; hori bai, benetan gertatutakoa azaltzeko interes handiegirik gabe.<sup>21</sup> Eta, noski, Euskaditik idazten bada, buru-hezurren aipamena ezinbestekoa izaten da.

Zer ondoriozta daiteke *affaire* bitxi honetatik? Lehenik eta behin, eta aurretik esandakoa errepikatuz, azpimarratu behar da Velascok ez zizkiela tripak atera Zarauzko hilerri zaharreko hilobieiei haien legezko jabeei buru-hezurak kentzeko. Askoz gauza errazagoa eta, gainera, ez hain makabroa egin zuen, nahiz eta oso zintzoa ez izan: hezurtegia arpilatu zuen. Bigarrenik: Velascok ez zuen eraiki

---

21 Dena den, testu interesgarriren bat ere argitaratzen da. Zehazki Andrés Perezek sinatzen duen artikulua bati buruz ari naiz: “*El extraño robo nocturno de los 71 cráneos de Zarautz*”, Público, 2010eko maiatzaren 30ekoa. Sarean eskuragarri dago: <http://www.publico.es/ciencias/extrano-robo-nocturno.html> (kontsulta; 19-04-2020).

udako egoitza herriko hilerri zaharraren gainean, haren hormen ondoan baizik; benetan jokabide eszentriko samarra, gure protagonistaren izaera makabroari ere leporatu behar dioguna. Eta, azkenik, funtsezko galdera: zergatik lapurtu zituen buru-hezur horiek? Bada, nik uste dut arrazoi sinple batengatik egin zuela, eta arrazoi hori guztiz bat zetorrela medikuntzaren eta zientzia antropologikoen aurrerapenaren aldeko konpromiso tinko eta iraunkorrenekin: antzinako eta egungo, penintsulako edo beste edozein lekutako gizakiaren jatorria, banaketa eta ezaugarriak aztertzeko behar diren elementu guztiak biltzeko beharra sentitzen zuen. Eta, testuinguru horretan eta premisa horien arabera, bistakoa da helburuak bitartekoak justifikatzen dituela; hezurtegi batean baimenik gabe sartzea, eta gauez, eta zenbait dozenaka buru-hezur ateratzea guztiz justifikatuta dagoela. Bai testuingurua bai zirkunstantziak guztiz aldekoak zituela, eta aprobetxatu egin behar zituela. Arrazonamendu horrek berak eman zion aukera –baita obligazioa ere– “Etxemadurako erraldoia”-ren gorpuzkiak gordetzeko eta erakusteko. Eta, nahiz eta kasua eta zirkunstantziak guztiz bestelakoak izan, pentsatzeko modu horren izpi batzuk loratzen dira bere alaba Conchitaren gorpu momifikatua desohiratu eta urna batean gorde zuenean. Gaur egun, Velascok Brocari oparitu zizkion buru-hezur fama-

tuak Parisko “Gizonaren Museo” berrituan daude. Bere bildumarako gorde zituenak, azkenean, Madrilgo Atocha paseoko museo handian geratu ziren. Eta han jarraitzen dute, egungo Antropologiako Museo Nazionalaren biltegietan.



**Luis Ángel Sánchez Gómez-i esker onez, gure herriko historia berreskuratzen laguntzeagatik.**



# VELASCO

LA CASA, EL CEMENTERIO Y  
LOS CRÁNEOS DE ZARAUTZ



Texto procedente de:

SÁNCHEZ GÓMEZ, Luis Ángel (2020): Capítulo 6  
“La casa, el cementerio y los cráneos de Zarauz”, en  
L. A. Sánchez Gómez *Entre cadáveres. Una biografía  
apasionada del doctor Pedro González Velasco (1815-  
1882)*. Madrid: CSIC, pp. 87-108.

Ilustración de la cubierta:

Rafael Munoa, 1989. *Udal Musikategia (Acuarela)*

## LA CASA, EL CEMENTERIO Y LOS CRÁNEOS DE ZARAUZ

*Cuando el lector concluya la lectura de este libro, tendrá pruebas irrefutables de algo que ya ha podido intuir: Pedro González Velasco vivió una vida ciertamente singular. Pero, incluso asumiendo su carácter ajeno a los convencionalismos, debemos reconocer que esa biografía está marcada por tres hitos absolutamente extraordinarios que han fijado su leyenda macabra en el imaginario popular. Los dos últimos los conoceremos en próximos capítulos: de un lado, la muerte, embalsamamiento, exhumación, momificación y “exposición doméstica” del cadáver de su hija Conchita; de otro, el caso del “gigante extremeño”, cuyo vaciado, esqueleto, e incluso la piel, acaban formando parte de las colecciones de su museo. El primero es precisamente el que ahora nos ocupa: la construcción de una magnífica residencia en Zarauz. Pero, ¿qué tiene de macabro el hecho de que un respetable cirujano levante una bonita casa de verano en la ya entonces famosa villa guipuzcoana? Pues, ciertamente, nada. El lado oscuro del asunto se manifiesta cuando, al poco de construirla y de forma más bien sospechosa, Velasco se hace con una colección de cráneos procedentes del cementerio de la localidad, que curiosamente linda con el jardín de su nueva residencia. Pues bien, antes de adentrarnos en tan llamativo asunto, debe*

*reconocerse que estos tres singulares episodios solo se explican si somos capaces de comprender el excéntrico, aunque coherente, universo anímico y profesional del doctor Velasco. Si lo hacemos, es posible encontrar un sentido y hasta una buena lógica a su conducta. Es más, también podremos confirmar que, si bien los tres tienen un poderoso fondo macabro, sobre los acontecimientos basales se han ido acumulando elementos puramente legendarios que han dado varias vueltas de tuerca a lo realmente acontecido.*

